

Txoriak haizea bezala

Euskaldunon Egunkaria, 1993-07-06: 9.

Txori batek hegan egiteko haizea behar duen bezalaxe eta arrainak igeri egiteko ura behar duen bezalaxe, behar du herri batek hizkuntza. Zeren eta arrainak ez baitaki ura denik ere, eta txoriak ere ez daki haizerik badenik ere; nahiz eta biak medio horretan bizi. Gure ondoan ikusten ditugun herri batzuk hizkuntza horrelaxe sentitzen dute. nahita-nahiezko berea duten zerbait bezala. Baina zer gertatzen da txoria ur azpian sartzen denean edo arrain bati amua sartu eta airera ateratzen denean? Giroak akabatzen ditu. Eta guk giro hori bizi dugu. Guk merezi ez dugun giroa eta hainbeste aldiz borrokan ibili ondoren, oso gutxi lortu dugun giroa daukagu.

Badira gure herriaren historian momentu latzak. Baina guk borroka latzak eginda gero ere, jakin dugu ikastolen giroan bezala eta orain EGUNKARIAren giroan bezala, jai bidez ahaleginak egiten. Asmatu ditugu Herri Urrats eta horrelakoak, asmatu dugu Korrika eta asmatu ditugu jaiak ere. Eta hau da EGUNKARIAk sortu duen bigarren jai. Horrek esan nahi du, bizi garela oraindik, gerra giro zailean baina bizi garela. Eta egunen batean nik uste dut arrainak behar duen ura eta txoriak behar duen haizea ere, gure euskarara etorriko zaigula, edo ekarriko dugula edo behartuko dugula ekartzera, zeren eta gure herri hau ez dute erraz hilko.